

SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN SAIOAREN AKTA

2017ko MAIATZAREN 30eko SAIOA

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan arestian aipatutako eguneko hamaikak eta zortzi minutu direnean, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ohiko bilera egin du, Presidente jaunak alde zuzenetik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

Kontseiluburua: Danel Bringas Egilior jn.

Bertaratutako bokalak:

Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn., Eusko Abertzaleak Udal Taldea
Cristina Senarriaga Rojo and., Eusko Abertzaleak Udal Taldea
Jonatan Sánchez Fernández jn., Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea
Endika García Saez jn., Bildu Udal Taldea
Janire Larrea González and., Euskal Sozialistak Udal Taldea

Zuzendaria: Carlos Morán Arostegi jn.

Kontu hartzailea: José Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda jn.

Komunikazio arduraduna: Margarita Olabarrieta Sobera and.

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

1.- 2017ko MARTXOAREN 28ko OHIKO BATZARRAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Eusko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak Udal Taldeetako kideek aldeko botoa eman dute, Sí Se Puede eta Bildu Udal Taldeetakoek, berriz, abstentzioa agertu dute. Horrela bada, aipatutako akta onartu egin da.

2.- AUTONOMIADUN ERAKUNDEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Kornites eta San Jorge jaietako oroitza txostena:

Bringas Egilior jaunak azaldutakoaren arabera, egitarauan aurreikusitako ekitaldi guztiak behar bezala burutu ziren. Gainera, eguraldi ona egonenez, jendetzak hartu zuen parte.

Kornites erromeriarekin lotuta, kontseiluburu jaunak esan du toki bat prestatu zela zaldientzat eta jabeek oso pozik hartu zutela. San Jorgez, berriz, Sardinaren Erronka Gernika parkean egin zela jakinarazi du.

Karmengo jaiak

Bestalde. Bringas Egilior jaunak adierazi du Karmengo jaiekin lotuta kartel-lehiaketan izena emateko epea zabaldu dela, bai eta prozesioaren segizioan ontzi partikularrak joatekoa ere.

Sánchez Fernández jaunak esan du suposatzen duela oroitza-txostena ez dela aurreko astean gai-zerrendarekin batera bidali lan-karga handia dutelako, eta ez kontseiluburuak hala erabakita.

Horrez gain, Sánchez Fernández jaunak esan du oroitza-txostenean ez dela adierazten, aurreko urteetan bezala, zenbat lagun artatu diren. Sí Se Puede udal taldeak jakin du Kornites egunean 23 lagun artatu zirela eta 7 ospitalera eraman behar izan zituztela. Gaineratu du La Fuga taldearen kontzertuan 3 anbulantzia eta UVI ibiltari bat etorri zirela herritarrak artatzera. Bere ustez, egokia litzateke osasun-gune bat ezartzea edo kontzertu-gunetik gertu anbulantziaren bat egotea, Karmengo jaietan egiten den moduan, horrela premiazko kasurik balego ez litzateke itxaron beharko anbulantziak heldu arte.

Bringas Egilior jaunak erantzun dio esanez hurrengo batzarrerako zinegotziek egoki deritzen ekarpen guztiak agertu ditzaketela.

3. GALDE-ESKEAK

Sánchez Fernández jaunak galdetu du ea zein neurri hartuko diren ez dadin Juan Maganen kontzertuan gertatu zena gertatu.

Bringas Egilior jaunak erantzun dio esanez segurtasun-plana ezarrita dagoela eta koordinazio-lan profesionala egin dela. Jakinarazi du plan horretan bai beste erakunde batzuek eta bai udal arlo eta zerbitzuek hartu dutela parte. Hala era guztiz ere, amaitu du esanez ez dagoela zero arriskurik eta egoki irizten diren neurriak hartuko direla.

Beste gairik egon ez denez, Kontseiluburu jaunak batzarra amaitutzat eman du akta honen hasieran zehaztutako egunean, goizeko hamaikak eta hogeit hamar minutu direnean. Eta nik, idazkari eskuorde naizen honek, hau guztiau ZIURTATU egiten dut.

O. E. KONTSEILUBURUA